



# KANALAK

Gure proiektua merkatu-segmentuetara iristeko sare sozialak eta ahoz ahoko komunikazioa erabiliko dugu. Horrela gure baloreak (hondakinak murriztea, behar dutenei laguntzea, bertako merkata bultzatzea eta abar) erosle zein kolaboratzaileei helaraziko dizkiegu. Gure hornitzaileekin presentzialki, deien bitartez, zein korreo elektronikoz ipiniko gara harremanetan; eta komunikazioa mantentzeko emaila izango da bide nagusia.

Kupoiak gure aplikazioaren bitartez bidaliko ditugu, gure bezeroak erregistratuta egongo diren erabiltzaileen bitartez. Saltzaileek deskontua jaso duten tiketak gorde egin beharko dituzte, ondoren hauen argazkiak guri bidaltzeko (email bitartez) eta guk euren kontu korrontera dirua bidaltzeko.

Produktua jasotzeko mekanismoa hurrengoa izango da: bezeroak hobekien etortzen zaien saltokira beraiek joan beharko dira eta bertan adostu beharko dute ordaintzeko modua.

Saltzerako orduan produktuen berezko prezioa baina merkeago salduko dira, gure eskaera %30eko deskontua egitea da.